Prezipitazioari dagokionez apirila ohikoa izan zen orokorrean eta hezea Gorbeia inguruko eskualdean eta Donostialdean. Banaketa espazialari dagokionez, espero zitekeena gertatu zen, hots, euri gehien Gipuzkoa ipar-ekialdean egin zuen (Eskas 318.3 mm, Añarbe 234.7 mm, Ameraun 210.5 mm, Ereñozu 192.8 mm). Euri-egun (≥ 1 mm) kopurua ohikoa izan zen, 10-13 artekoa orokorrean eta txikiagoa, 8, Arabako Errioxan. Hilaren 1ean, egunaren lehen partean, 400-500 m-tik gora zuritu zuen goizaldean. Prezipitazioa ahula izan arren, tarteka trumoi-ekaitzak izan ziren eta txingor-zaparradak bota zituen Kantauri isurialdean, bereziki kostaldean. Gauean eta hurrengo eguneko goizaldean elur-kota 300-400 m-ra jaitsi zen eta elurtea handiagoa izan zen: Arabako Lautadako zenbait lekutan, adibidez, 10-20 cm pilatu ziren.

Batez besteko tenperatura ohikoa izan zen orokorrean eta hotza Araba erdialdean. Kostaldean 12-13 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 9 °C ingurukoa. EAE osoa kontuan hartuz, 1981-2010 denboraldiko batezbestekoa baino 0.2 °C altuagoa. Mende honetako laugarren edo bosgarren apirilik freskoena da oraingo. Intsolazioari dagokionez, kostaldean ohikoa dena baino eguzki-ordu gutxiago izan ziren kostaldean, ekialdean % 9 gutxiago (Donostia, 136 ordu); barnealdean alderantziz gertatu zen eta eguzki-orduak ohikoa dena baino % 7 gehiago izan ziren (Gasteiz, 174 ordu).

Urte sasoi honetan ohikoa denez, haizearen norabidea nahiko aldakorra izan zen. Nahiz eta orokorrean laugarren koadranteko haizeak nagusitu, egun batzuetan lehengo koadranteko haizeak ere neurtu ziren, bereziki aintzira barometrikoa izan zen egunetan. Bigarren edo hirugarren koadranteko haizeak nagusitu ziren egunak ere izan ziren, eta orokorrean egun horietan neurtu ziren hilabeteko haize-boladarik gogorrenak.

MAYO

La primera semana estuvo caracterizada por un régimen de dorsal atlántica, con reflejo en superficie de anticiclón atlántico y depresión térmica peninsular. Se produjeron tormentas intensas en la vertiente mediterránea, destacando las granizadas y los extraordinarios acumulados en el Levante. La segunda semana comenzó con bloqueo en el norte de Europa y transitó hacia una dorsal atlántica. La situación sinóptica era de anticiclón de las Azores y depresión térmica peninsular. Las temperaturas fueron ascendiendo, ya por encima de lo normal. El tiempo cambió hacia mediados de mes debido a depresiones sobre el Atlántico y a una vaguada al oeste de la Península. Los frentes asociados dieron lugar a chubascos tormentosos, sin especial afectación en la comarca, aunque intensos el día 15 en el litoral guipuzcoano. Después vinieron jornadas de calor, por la invasión de una masa de aire cálida de origen africano, ayudada por una borrasca atlántica al oeste de la Península. El día 23 una vaguada avanzó sobre el territorio, dando lugar a un drástico cambio de tiempo, caída de temperaturas e inestabilidad, que se tradujo en tormentas, sobre todo en la vertiente cantábrica. En la recta final el tiempo se fue estabilizando, con la dorsal subtropical tratando de penetrar por el sudeste de la Península, entre sendas bajas, una en el Atlántico y otra en las Azores. En superficie, bajas presiones relativas, con flujos locales y régimen de brisas por las tardes.

Mayo se ha comportado entre muy seco y extremadamente seco, en relación al periodo normal 1981-2010. La distribución espacial del total mensual se ha alejado de la habitual, con los valores más altos en esta ocasión localizados en la divisoria de aguas entre Álava y Bizkaia (Iurreta 62 mm, Gorbea 56.4 mm, Otxandio 49.7 mm) y en el litoral, entre Markina-Ondarroa y Donostia-San Sebastián (Miramon 56.3 mm, Aizarnazabal 53.5 mm, Berriatua 51.8 mm). En cualquier caso, se trata de valores muy pobres, que representan porcentajes respecto a lo normal por debajo del 50%, bajando al 20% en el este y sur de la CAV, además de la Cantábrica Alavesa. El número de días de lluvia (≥ 1 mm) ha sido de unos 5 (2 en la Rioja Alavesa), la mitad de lo esperable, aproximadamente.

Las temperaturas medias de mayo han sido extremadamente cálidas. En la costa han rondado los 17 °C y en la Llanada Alavesa los 15 °C, esto es, unos 2.4 °C por encima del promedio del periodo normal 1981-2010. Existe una tendencia norte-sur en esta anomalía, siendo más baja en el litoral (rondando 2 °C) y subiendo progresivamente hacia el sur de Álava (hasta los 3 °C). Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación muy superior a la esperable en esta época del año en el interior, más de un 30% de horas de sol en la vertiente mediterránea (Vitoria-Gasteiz 255 h). Hacia el litoral el porcentaje baja al 10% (Donostia-san Sebastián 195 h, Bilbao 189 h).

Durante gran parte del mes ha predominado el régimen de vientos locales; así ocurre durante el primer y el último tercio del mes, con vientos de dirección variable y de poca intensidad. Durante el segundo tercio del mes lo han hecho los vientos del segundo y tercer cuadrante, en especial los primeros, con giros bruscos al cuarto cuadrante, especialmente en la costa. Estos días también han hecho aparición los vientos del primer cuadrante, en forma de brisas costeras.

MAIATZA

Lehenengo astean Atlantikoan gailur bat nagusitu zen, gainazalean antizikloi atlantiarra eta Iberiar penintsulan bero-depresioa. Mediterraneo isurialdean trumoi-ekaitz handiak izan ziren; kazkabar erauntsiak nabarmendu ziren eta baita Levanten pilatu zen ezohizko euria. Bigarren astea blokeo-antizikloi batekin hasi zen Europa iparraldean eta Atlantikoko gailur baterantz egin zuen bilakaera. Azoreetan antizikloia ezarri zen eta bero-depresioa Iberiar penintsulan. Temperatura igo egin zen, ohiko balioetatik gora. Hilaren erdialdera aldatu zen eguraldia, Atlantikotik hurbildu ziren depresio batzuen eta Iberiar penintsularen mendebaldean kokatu zen aska baten ondorioz. Depresioei loturiko fronteek eragin ziguten eta zaparrada trumoitsuak bota zituen; orokorrean ez zuten azpimarratzeko moduko ondorioz utzi, nahiz eta 15ean Gipuzkoako kostaldean handiak izan. Ondoren, bero-egunak etorri ziren, afrikar jatorriko aire masa bero baten inbasioaren ondorioz eta Iberiar penintsularen mendebaldean zegoen Atlantikoko depresio batek lagunduta. Hilaren 23an aska EAera hurbildu zen eta eguraldia bat-batean aldatu zen: giro ezegonkorra nagusitu zen, temperatura asko jaitsi zen eta trumoi-ekaitzak eragin zituen, batez ere Kantauri isurialdean. Hilaren amaieran eguraldiak egonkortzera egin zuen, gailur subtropikal bat bi depresioen artean Iberiar penintsularen hego-ekialdetik sartzen hasi zen, bat Atlantikoan zegoen eta bestea Azoreetan. Gainazalean, presio baxu erlatiboak nagusitu ziren, tokian tokiko haizeekin eta arratsaldetan brisarekin.

Maiatza oso lehorra edo erabat lehorra izan zen, 1981-2010 denboraldiko batezbestekoarekin alderatuz. Banaketa espaziala ez zen batere ohikoa izan; euri gehien Araba eta Bizkaia arteko banalerroan (lurreta 62 mm, Gorbea 56.4 mm, Otxandio 49.7 mm) eta kostaldean, Markina-Ondarroa eta Donostialdea artean, egin zuen (Miramon 56.3 mm, Aizarnazabal 53.5 mm, Berriatua 51.8 mm). Edozein kasutan, euria oso urria da, ohikoaren % 50 baino gutxiago EAeren ekialdean, eta % 20 hegoaldean eta Aiaraldean. Euri-egun (≥ 1 mm) kopurua 5 ingurukoa izan zen eta Arabako Errioxan 2 soilik izan ziren, ohikoa denaren erdia.

Maiatzeko batez besteko tenperatura erabat beroa izan zen: Kostaldean 17 °C ingurukoa eta Arabako Lautadan 15 °C ingurukoa, hau da, 1981-2010 denboraldiko batezbestekoa baino 2.4 °C altuagoa. Anomalian iparraldetik hegoalderantz joera bat ikusten da, anomalia txikiena kostaldekoa izan zen, 2 °C ingurukoa, eta zenbat eta hegoalderago, eta orduan eta handiagoa zen anomalia; Araba hegoaldean 3 °C ingurukoa. Intsolazioa ere ohikoa dena baino askoz handiagoa izan zen: Mediterraneo isurialdean % 30 eguzki-ordu gehiago izan ziren (Gasteiz 255 ordu) eta kostaldean % 10 eguzki-ordu gehiago (Donostia 195 ordu, Bilbao 189 ordu).

Haize lokala nagusitu zen ia hilabete osoan; horrela izan zen maiatzaren lehenengo eta azken herenean, orduan haizea ahul eta aldakor ibili zen orokorrean. Hilabetearen bigarren herenean, berriz, bigarren eta hirugarren koadrantea haizea gailendu zen, batez ere bigarrenekoak, baina egun horietan haizearen aldaketa zakarrak gertatu ziren, laugarren koadrantera. Egun horietan lehenengo koadrantea haizea ere ibili zen noizbehinka, kostaldeko brisa moduan.

JUNIO

Sinópticamente se fue conformando una situación de depresión atlántico-ibérica, bastante estacionaria, que trajo tiempo algo inestable. A partir del 6 se restablece la circulación zonal sobre la Península, que evoluciona hacia una dorsal con eje desde las Islas Británicas hasta el norte peninsular, aportando gran estabilidad, a excepción de varios frentes que rozan el Cantábrico. A partir del 10 las altas presiones se consolidan sobre la Península, con una dorsal estacionaria y circulación anticiclónica, por lo que se mantiene la estabilidad. Por otro lado, DANA también estacionaria al oeste de Portugal, que refuerza la advección cálida. Así, durante toda la semana del 13 se mantuvo una situación de intenso calor, que culmina el día 18, jornada en la que también comienza a remitir desde el litoral. Ya en la cuarta semana, la DANA termina disolviéndose en la circulación general. Potente anticiclón sobre Azores y bajas presiones poco marcadas sobre la Península. La lengua de aire cálido es desplazada hacia el Mediterráneo. A partir del 24 entramos en una fase donde se renueva la ciclogénesis en el Atlántico Norte. Sucesión de borrascas sobre las Islas Británicas, con frentes asociados que barren el Cantábrico, intercalándose con cuñas anticiclónicas.

Junio se ha comportado de manera dispar a lo largo del territorio, existiendo un cierto gradiente entre el norte, normal en las comarcas litorales vizcaínas y húmedo en las guipuzcoanas, y el sur, seco a lo largo de la divisoria y muy seco en buena parte de la vertiente mediterránea, especialmente en el eje del Ebro. Las cuencas del este de Gipuzkoa, desde el Oria hasta el Bidasoa, han sido las que más agua han recogido, con unas pocas estaciones superando los 100 mm (Eskas 140.2 mm, Miramon 129.6 mm, Belauntza 106.9 mm, Andoain 104.1 mm, Lasarte 103.1 mm). El número de días de lluvia (≥ 1 mm) refleja también esa disparidad. En el litoral es normal, incluso por encima del promedio en el Gran Bilbao (Donostia-San Sebastián 14 días, Bilbao 11 días); mientras que en la vertiente mediterránea está por debajo (Vitoria-Gasteiz 5 días, Párganos 2 días).

Las temperaturas medias de junio han sido muy cálidas. En la costa han rondado los 19-20 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 19 °C, 2.5 °C por encima del promedio normal 1981-2010 para el conjunto de la CAV. Dicha anomalía es diferente según vertientes, de unos 2 °C en la cantábrica, de 3 °C o más en la mediterránea. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación que ha rondado lo normal en la vertiente cantábrica. En la mediterránea, sin embargo, las horas de sol han superado las esperables a estas alturas del año, en un 14 % aproximadamente. Por capitales, Bilbao habría tenido 176 horas, Donostia-San Sebastián 197 horas y Vitoria-Gasteiz 248 horas.

Durante gran parte del mes el viento ha sido, bien de carácter local, con predominio del viento del primer cuadrante durante la tarde, bien del cuarto cuadrante. La intensidad ha sido, en general, baja.

EKAINA

Egoera sinoptikoak pixkanaka atlantiar-iberiar depresio baterantz egin zuen bilakaera, depresioa nahikoa geldikorra izan zen eta eguraldi ezegonkorra eragin zuen. Hilaren 6tik aurrera zirkulazio zonala ezarri zen Iberiar penintsulan eta gero gailur bat etorri zen, zeinak ardatza Britainiar uharteetatik Iberiar penintsularantz luzatuta zuen. Gailurrak egonkortasuna ekarri zuen, hala ere fronte batzuk Kantauri ukituz pasa ziren. Hilaren 10etik aurrera presio altuak gailendu ziren Iberiar penintsulan, gailur geldikor batekin eta zirkulazio antiziklonikoarekin, beraz egonkortasunarekin jarraitu genuen. Bestalde, Portugalen mendebaldean depresio askatu geldikor bat ezarri zen, adbekzio beroa indartuz. Horrela, hilaren 13ko astean bero handia egin zuen. Hilaren 18an amaitu zen beroaldia, kostaldetik hasita. Laugarren astean, depresio askatua zirkulazio orokorrean desegin zen. Azoreetan antizikloi indartsu bat eta Iberiar penintsulan gradiente txikiko presio baxuak izan genituen. Aire berozko mihia Mediterraneorantz mugitu zen. Hilaren 24tik aurrera Atlantiko iparraldean ziklogenesia berritu zen. Britainiar uharteetara segidan depresioak iritsi ziren eta haiei loturiko fronteek Kantauri zeharkatu zuten, ziri antiziklonikoekin tartekatuz.

Ekainean pilatutako prezipitazioa oso ezberdina izan zen eskualde batetik bestera. Bizkaiko kostaldean ekaina ohikoa izan zen, Gipuzkoako kostaldean, berriz, hezea. Isurialdeen arteko banalerroan, berriz, lehorra izan zen hilabetea, eta Mediterraneo isurialdeko hainbat lekutan oso lehorra, batez ere Ebro ondoko eskualdean.

Gipuzkoa ekialdeko arroetan, Oriatik Bidasoara, egin zuen euri gehien eta zenbait estaziotan 100 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 140.2 mm, Miramon 129.6 mm, Belauntza 106.9 mm, Andoain 104.1 mm, Lasarte 103.1 mm). Euri-egun (≥ 1 mm) kopuruan ere ezberdintasunak izan ziren. Kostaldean kopurua ohikoa izan zen, Bilbo Handian ohikoa dena baino handiagoa (Donostian 14 egun, Bilbon 11 egun), Mediterraneo isurialdean, aldiz, kopuru hori txikiagoa izan zen (Gasteizen 5 egun, Paganosen 2 egun).

Tenperaturari dagokionez, ekaina oso beroa izan zen. Kostaldeko batez besteko tenperatura 19-20 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadakoa 19 °C-tik gertu egon zen, hau da, EAE osoa kontuan hartuz 1981-2010 denboraldiko batezbestekoa baino 2.5 °C altuagoa. Bi isurialdeen anomalia ez zen berdina izan, ordea; Kantauri isurialdekoa 2 °C ingurukoa izan zen, Mediterraneo isurialdekoa, berriz, 3 °C-koa edo altuagoa. Kantauri isurialdean intsolazioa ohikoa izan zen. Mediterraneo isurialdean, ordea, eguzki-orduak ohikoa dena baino askoz gehiago izan ziren, % 14 gehiago, gutxi gorabehera. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 176 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 197 ordu eta Gasteizen 248 ordu.

Ekaineko hainbat egunetan haizea lokala izan zen, arratsaldetan lehenengo koadrantekoa eta beste batzuetan laugarren koadrantekoa nagusitu ziren. Haizearen indarra ez zen handia izan orokorrean.

JULIO

La primera semana la situación sinóptica característica ha sido la de anticiclón de las Azores y depresión térmica peninsular. Varias líneas de inestabilidad dejan algunas tormentas los días 3 y 6. El 7 es una jornada de transición hacia una configuración sinóptica de altas presiones sobre el Atlántico y Europa, de gran persistencia y estabilidad. Así, el día 9 se dibuja una dorsal sobre el oeste de la Península, que se prolonga desde Islandia, desplazándose hacia el este. Por otro lado, al oeste de Portugal se aísla una DANA de la circulación polar. Con estos dos elementos predominan los cielos despejados y van en ascenso las temperaturas en todo el territorio, comenzando por el eje del Ebro, y derivando hacia una intensa ola de calor los días centrales y temperaturas máximas de record. Ya en el último tercio del mes, hay una vuelta a la configuración de anticiclón de las Azores, con predominio de vientos de componente norte, aunque el día 24 se retira momentáneamente, provocando un repunte de las temperaturas. Líneas de inestabilidad o la cola de algún frente debilitado dejan algo de precipitación, aunque relegada a la vertiente cantábrica.

Julio ha sido entre muy seco y extremadamente seco, en relación al periodo normal 1981-2010. Con las pobres cantidades registradas, la distribución espacial ha quedado desdibujada respecto a lo esperable. Los valores más altos en esta ocasión se localizan entre Urola Costa y el Goierri, siendo esta última comarca una zona habitualmente de “sombra pluviométrica” (Matxinbenta 63 mm, Ordizia 49.8 mm, Aizarnazabal 35.1 mm, Andoain 35.1 mm). Como es lógico, el número de días de lluvia (≥ 1 mm) ha sido muy pobre. Se han reducido a 1 o 2 días, excepto en el nordeste de Gipuzkoa, donde han llegado hasta 6 días. Además, ninguno lo ha sido de lluvias generalizadas en toda la CAV, siempre dispersas.

Las temperaturas medias de julio han sido muy cálidas. En la costa se han movido entre los 21-23 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 21 °C. La anomalía respecto al promedio del periodo normal 1981-2010 es de unos 2.2 °C, bastante uniforme a lo largo del territorio. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación muy superior a la esperable en esta época del año en el interior, especialmente en la vertiente cantábrica, con un 35-50% más de horas de sol. También por encima en la vertiente mediterránea, aunque los porcentajes rondan el 20%. Por capitales, Bilbao habría tenido unas 281 horas, San Sebastián 267 horas y Vitoria-Gasteiz 297 horas.

Durante gran parte del mes el viento ha sido de carácter local, con predominio del viento de componente norte por las tardes, dejando entonces rachas fuertes, especialmente en Álava. Ocasionalmente el viento ha soplado del norte durante toda la jornada debido a la situación sinóptica, especialmente los días 4 a 7. En Álava, especialmente en su mitad oriental, ha destacado también el viento del este-sureste, que ha soplado sobre todo durante las primeras horas del día y que ha dejado algunas rachas importantes en zonas no expuestas.

UZTAILA

Lehenengo astean Azoreetako antizikloia eta Iberiar penintsulan bero-depresioa nagusitu ziren. Ezegonkortasun lerro batzuk trumoi-ekaitzak eragin zituzten hilaren 3an eta 6an. Hilaren 7a beste konfigurazio sinoptiko baterako iragate eguna izan zen, egoera oso egonkor eta iraunkorrera, Atlantikoan eta Europan presio altuekin. Horrela, hilaren 9an, gailur bat sortu zen Iberiar penintsularen mendebaldean; Islandiaraino luzatu zena ekialderantz mugitu heinean. Beste alde batetik, Portugal mendebaldean depresio bat askatu zen zirkulazio polarretik. Gauzak horrela, oskarbi egon zen eta tenperaturak gora egin zuen EAE osoan Ebro ibarretik hasita. Bero-bolada handia izan zen uztailleko erdialdeko egunetan eta errekorreko temperatura maximoak neurtu ziren. Uztailleko azken herenean konfigurazioa aldatu egin zen: Azoreetako antizikloiaren eraginpean egon ginen eta iparraldeko haizea nagusitu zen. Hilaren 24an, ordea, antizikloia pixka bat mugitu egin zen eta berriro ere gora egin zuen tenperaturak. Ezegonkortasun lerro batzuk eta fronte batzuen hondarrek euri pixka bat utzi zuten, baina Kantauri isurialdean soilik.

Uztaila, 1981-2010 denboraldi arruntaren arabera, oso lehorra edo erabateko lehorra izan zen. Pilatutako kantitate urriarekin, prezipitazioak izan zuen banaketa espazialak ez zuen espero zitekeenaren inolako itxurarik hartu. Hala, oraingoan, baliorik altuenak Urola Kosta eta Goierri artean neurtu ziren, eta azken eskualde hori normalean "itzal plubiometrikoa" izaten da (Matxinbenta 63 mm, Ordizia 49.8 mm, Aizarnazabal 35.1 mm, Andoain 35.1 mm). Logikoa denez, euri egunen kopurua (≥ 1 mm) oso urria izan zen. Egun bat edo bira murriztu ziren, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han 6 egunetan egin zuen euria. Gainera, euria egin zuenean ere, sakabanatuta egin zuen oso.

Uztailleko batez besteko tenperatura oso beroa izan zen. Kostaldean 21-23 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 21 °C-ra gerturatu zen. 1981-2010 denboraldi arruntaren arabera, 2.2 °C-ko anomalia positiboa egon zen, eta ia orokorra izan zen. Tenperatura horiekin batera, urte-garai honetan espero baino intsolazio askoz handiagoa izan zen barnealdean, bereziki Kantauri isurialdean, % 35-50 eguzki-ordu gehiagorekin. Mediterraneo isurialdean ere handiagoa izan zen, %20 eguzki-ordu gehiagorekin. Hiriburuei dagokienez, Bilbok 281 eguzki-ordu inguru izan zituen, Donostiak 267 eta Gasteizek 297 ordu.

Hilaren zati handi batean, haize lokala izan zen nagusi, eta orokorrean arratsaldetan iparraldetik finkatu eta indartu egiten zen, bolada gogor batzuk neurtuz, bereziki Araban. Egun batzuetan, haizeak iparraldetik jo zuen egun osoan zehar, egoera sinoptikoaren ondorioz, bereziki hilaren 4tik 7ra bitartean. Aldi berean, Araban, bereziki ekialdean, eki/hego-ekialdeko haizea nabarmendu zen, batez ere egunaren lehenengo orduetan ibili zen, eta haizeguneak ez diren lekuetan bolada gogor batzuk neurtu ziren.

AGOSTO

Si bien agosto comienza con una situación indefinida de la circulación atmosférica en el sector euro-atlántico, se va configurando un bloqueo escandinavo, que va a predominar el resto del mes. El marco sinóptico predominante sobre la Península ha sido el de anticiclón de las Azores, algunas veces substituido por el anticiclón atlántico, y depresión térmica peninsular. Se trata de patrones característicos del verano, que conducen a un tiempo caluroso, especialmente en el interior de la CAV, e inestable. En algunas ocasiones, la situación sinóptica ha dibujado una estructura en omega, con la dorsal anticiclónica invadiendo la Península desde el norte de África y sendas depresiones a ambos lados de la misma, que se han descolgado de la circulación general. En superficie, la baja térmica peninsular y el viento sur han hecho elevar los termómetros de manera acusada, incluso en el cantábrico oriental. Es lo que sucede por ejemplo los días 10 a 13 y en menor medida el 28-29.

Agosto ha sido un mes seco o muy seco, excepto en las comarcas del Bajo Bidasoa y Donostia-San Sebastián, hacia la muga con Navarra, donde ha sido muy húmedo, en relación al periodo normal 1981-2010. Dicha zona es la única con un porcentaje positivo respecto a lo normal, en el resto ha llovido aproximadamente la mitad de lo esperable. El acumulado mensual muestra una marcada diferencia espacial entre unas pocas estaciones del nordeste de Gipuzkoa, con valores por encima de los 100 mm (Eskas 246.4 mm, Añarbe 189.4 mm, Behobia 152.6 mm, Oiartzun 134.4 mm, Ereñozu 113.2 mm, Ameraun 105.3), y el resto, con valores claramente más bajos. El número de días de lluvia (≥ 1 mm) ha sido el normal en nordeste de Gipuzkoa, llegando por ejemplo la capital donostiarra a 10. En Bilbao y Vitoria-Gasteiz se han reducido a 6 y 3, respectivamente, ya por debajo del promedio.

Las temperaturas medias de agosto han sido muy cálidas. En la costa se han movido entre los 21.5-23.5 °C y en la Llanada Alavesa han superado los 21 °C. La anomalía respecto al promedio del periodo normal 1981-2010 es de unos 2.6 °C. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación por encima del promedio normal, en torno a un 15 % más de horas de sol. Por capitales, Donostia-San Sebastián habría tenido 213 horas, Bilbao 221 horas y Vitoria-Gasteiz 272 horas.

Tal y como es habitual en los meses estivales, durante gran parte de agosto el régimen de vientos ha sido local, con predominio de viento del primer cuadrante durante las horas vespertinas. El resto de los días se divide entre días de viento del cuarto cuadrante y días de viento del segundo cuadrante.

ABUZTUA

Abuztua, eguratseko zirkulazioari dagokionez, ongi definitu gabeko egoera batekin hasi bazen ere, gero Eskandinaviako antizikloi-blokeo bat sortzen hasi zen eta konfigurazio hori nagusituko zen ia hilabete osoan. Iberiar penintsulan Azoreetako antizikloia nagusitu zen: batzuetan hori Atlantikoko antizikloiak ordezkatu zuen eta beste batzuetan Iberiar penintsulako bero-depresioak. Udako patro bereizgarriak dira, eguraldi beroa dakartenak, bereziki EAEko barnealdean, eta ezegonkorra. Zenbait kasutan egoera sinoptikoan omega itxurako konfigurazioa agertu zen, gailur antiziklonikoak Afrika iparraldetik hasita Iberiar penintsula osoa hartuz eta bi depresiorekin alde banatan (zirkulazio nagusitik askatutakoak). Gainazalean, Iberiar penintsulako bero-depresioak eta hegoaldeko haizeak tenperatura asko igotzea eragin zuten, baita Kantauri ekialdean ere. Hori gertatu zen, adibidez, hilaren 10etik 13ra bitartean, eta neurri txikiago batean 28-29an.

Abuztua, 1981-2010 denboraldi normalarekin alderatuz, lehorra edo oso lehorra izan zen, Donostiako eta Bidasoa Beheko eskualdetan izan ezik, hau da, Nafarroako mugatik hurbil, bi eskualde horietan oso hezea izan zen. Ohikoa denarekin alderatuz, bi eskualde horietan soilik da portzentajea positiboa, gainerako tokietan espero zitekeen euriaren erdia bakarrik egin zuen. Abuztuan pilatutako euriak izugarritzko diferentzia espaziala erakusten du Gipuzkoa ipar-ekialdean dauden estazio gutxi batzuetan: 100 mm-tik gorako balioak dituzte batzuk (Eskas 246.4 mm, Añarbe 189.4 mm, Behobia 152.6 mm, Oiartzun 134.4 mm, Ereñozu 113.2 mm, Ameraun 105.3) eta gainerako guztiek balio askoz baxuagoak. Euri egunen kopurua (≥ 1 mm) Gipuzkoako ipar-ekialdean ohikoa izan zen; Donostian, esate baterako, 10 euri-egun izan ziren. Bilbon eta Gasteizen 6 eta 3 euri-egun izan ziren hurrenez hurren, ohikoa dena baino askoz gutxiago

Abuztuko batez besteko tenperatura oso beroa izan zen. Kostaldean 21.5-23.5 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadan 21 °C-tik gorakoa. 1981-2010 denboraldi normalaren batezbestekarekiko anomalia 2.6 °C ingurukoa izan zen. Horrela, serie historikoen bigarren abuzturik beroena izan zen, 2003ko abuztuaren atzetik soilik. Intsolazioa ere ohikoa dena baino handiagoa izan zen, % 15 eguzki-ordu gehiagorekin. Hiriburuz hiriburu, Donostian 213 eguzki-ordu izan ziren, Bilbon 221 eta Gasteizen 272.

Udako hilabeteetan ohikoa den bezala, abuztuaren zati handi batean tokian tokiko haizeak izan ziren nagusi, eta arratsaldetan lehen koadranteako haizeak nagusitzen ziren. Gainerako egunei dagokienez: erdietan laugarren koadranteako haizeak nagusitu ziren eta beste erdietan bigarren koadranteakoak.

SEPTIEMBRE

El marco sinóptico del primer tercio del mes está caracterizado por la transición de un patrón de pantano barométrico hacia una depresión británica, estacionaria al sudoeste de Irlanda. Los flujos ibéricos mantienen un ambiente seco (con algunas lloviznas en el litoral) y caluroso. Destacar también que en este periodo se genera el huracán bautizado como Danielle, en una latitud anómalamente alta en el centro del Atlántico norte, al oeste de Azores. A partir del día 11 el patrón es de depresión atlántico-ibérica, de la mano del ex huracán Danielle, convertido ahora en depresión atlántica y situado frente a las costas de Portugal. Mientras, el Mediterráneo occidental está dominado por una dorsal cálida anticiclónica. Así, el ambiente es muy cálido e inestable, produciéndose algunas tormentas. A partir del 17 el patrón es de anticiclón británico, con temperaturas que se van normalizando. Cambio radical del tiempo a partir del 24, con un patrón de circulación ondulada a bajas latitudes, que deja un ambiente muy húmedo y frío.

Septiembre se ha comportado de manera dispar a lo largo del territorio, existiendo un fortísimo gradiente entre el norte, muy húmedo en las comarcas litorales, y el sur, muy seco hacia el eje del Ebro, pero húmedo en los montes de Iturrieta. El nordeste de Gipuzkoa ha sido, con diferencia, la zona donde más ha llovido (Eskas 140.2 mm, Behobia 159.3 mm, Oiartzun 149.9 mm, Añarbe 145.4 mm, Miramon 142.8 mm), junto con puntos de las comarcas del Gran Bilbao y de Gernika-Bermeo (Matxixako 157.6 mm, Almike 135.3 mm, Venta Alta 119.1 mm, Muxika 117.6 mm, Zorrotza 113.2 mm). A pesar de esta dispar calificación, el número de días de lluvia (≥ 1 mm) ronda lo normal en todo el territorio: 10 días en Donostia-San Sebastián, 8 en Bilbao y 5 en Vitoria-Gasteiz.

Las temperaturas medias de septiembre han sido cálidas. En la costa han rondado los 19-20.5 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 17 °C, aproximadamente 1 °C por encima del promedio normal 1981-2010, una anomalía homogénea a lo largo de la CAV. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación que ha rondado lo normal en la vertiente cantábrica. En la mediterránea, sin embargo, las horas de sol han superado las esperables a estas alturas del año, entre un 15-20 % aproximadamente. Por capitales, Bilbao habría tenido 165 horas, Donostia-San Sebastián 186 horas y Vitoria-Gasteiz 214 horas.

Durante gran parte del mes el régimen de vientos es local, con flujos del primer cuadrante durante las tardes. También se registran periodos de viento del segundo y tercer cuadrante durante la primera quincena, mientras que los últimos días del mes el flujo dominante es del cuarto cuadrante.

IRAILA

Hilaren lehen herenean egoera sinoptikoak bilakaera izan zuen, aintzira barometrikoko egoera batetik britainiar depresio baterantz, zeina iraunkor egon zen Irlandaren hego-mendebaldean. Hegoaldeko fluxuen ondorioz giro lehorrarekin (nahiz eta kostaldean zirimiru pixka bat egin) eta beroarekin jarraitu genuen. Azpimarratu behar da denboraldi hartan sortu zela Danielle urakana, erabat ezohikoa den latitude batean, Ipar Atlantikoaren erdian, Azoreen mendebaldean. Hilaren 11tik aurrera atlantiar iberiar depresio batek definitu zuen egoera sinoptikoa; izan ere, Danielle urakana atlantiar depresio bihurtu zen eta Portugalgo costa parean kokatu zen. Mediterraneo mendebaldean, berriz, gailur antizikloniko bero batek agintzen zuen. Horrela, giro oso beroa eta ezegonkorra izan zen eta trumoi-ekaitz batzuk izan ziren. Hilaren 17tik aurrera beste patroiz meteorologiko bat nagusitu zen, britainiar antizikloia eta, orduan, ohiko tenperatura balioak izan genituen. Hilaren 24tik aurrera, eguraldia zeharo aldatu zen, behe latitudeetan izurtutako zirkulazioa izan baikenuen, giro oso heze eta hotzarekin.

Irailak modu oso ezberdinean jokatu zuen lurraldean zehar. Gradiente handia izan zen iparraldeko eta hegoaldeko eskualdeen artean. Kostaldean iraila oso hezea izan zen, Ebro ondoko eskualdean oso lehorra. Iturrietako mendietan iraila hezea izan zen. Gipuzkoako ipar-ekialdean egin zuen euri gehien, alde handiarekin gainera (Eskas 140.2 mm, Behobia 159.3 mm, Oiartzun 149.9 mm, Añarbe 145.4 mm, Miramon 142.8 mm), Bilbo Handiko eta Busturialdeko zenbait tokirekin batera (Matxitxako 157.6 mm, Almike 135.3 mm, Venta Alta 119.1 mm, Muxika 117.6 mm, Zorrotza 113.2 mm). Kalifikazio ezberdin hauek izan arren, euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohikoa izan zen lurralde osoan: 10 euri-egun izan ziren Donostian, 8 Bilbon eta 5 Gasteizen.

Irailako batez besteko tenperatura beroa izan zen. Kostaldekoa 19-20.5 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadakoa 17 °C-ra hurbildu zen, gutxi gorabehera 1981-2010 denboraldi normalaren batezbestekoa baino 1 °C inguru altuagoa EAEn. Mende honetako zortzigarren irailik beroena izan zen, 2006koa seriearen buru delarik. Intsolazioa Kantauri isurialdean ohikoa izan zen, ez ordea Mediterraneo isurialdean, han intsolazioa ohikoa dena baino handiagoa izan zen, % 15-20 arteko eguzki-ordu gehiagorekin. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 165 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 186 eta Gasteizen 214.

Hainbat egunetan haizea noraezean eta ahul ibili zen, eta arratsaldetan lehenengo koadrantezko fluxuak nagusitu ziren. Lehenengo hamabostaldian bigarren eta hirugarren koadrantezko haizea ere ibili zen, hilabetearen amaieran laugarren koadrantezko haizea izan zen nagusi.

OCTUBRE

La situación sinóptica del primer tercio del mes está dominada por el anticiclón atlántico-europeo, que conduce a un tiempo estable y temperaturas altas, sobre todo las máximas. A partir del día 10 la circulación dominante sobre la Península es la ondulada en bajas latitudes, que trae las primeras lluvias, derivando a mediados de mes hacia un patrón de depresión del golfo de Bizkaia. Después, hasta finales de mes se conforman, por un lado, un potente anticiclón mediterráneo-centroeuropeo, por otro, una sucesión de profundas depresiones atlánticas cuasi-estacionarias. En ocasiones se aproximarán a la Península por el noroeste, dando lugar a un patrón de depresión atlántico-ibérica. En cualquier caso, sobre el territorio intensos flujos del sur y altas temperaturas, muy superiores a las normales debido al efecto Foehn. Los días 30 y 31 los frentes consiguen romper la barrera de las altas presiones y cruzan el territorio dejando unas ansiadas precipitaciones y un descenso claro de las temperaturas.

Octubre ha sido un mes muy seco, en relación al periodo normal 1981-2010. Los acumulados mensuales a lo largo del territorio dibujan una distribución espacial alejada de la habitual, debido a las pírricas cantidades registradas. Los valores más altos rondan los 40 mm, en unas pocas estaciones de las comarcas litorales de Gipuzkoa (Aizarnazabal 45.5 mm, Andoain 39.5 mm, Miramon 39.5 mm, Eskas 38.3 mm, Ereñozu 35.3 mm). Lógicamente, el número de días de precipitación (≥ 1 mm) ha sido muy escaso. Centrándonos en las capitales, en Bilbao ha habido tan sólo 2 días, en Donostia-San Sebastián 4 y en Vitoria-Gasteiz 6, cuando el promedio es de 12, 11 y 9 días, respectivamente. Ninguna de ellos ha sido de precipitaciones generalizadas.

Las temperaturas medias de octubre han sido extremadamente cálidas, respecto al promedio del periodo normal 1981-2010. En la costa han llegado a superar los 20 °C y en la Llanada Alavesa los 16 °C, con una anomalía positiva muy llamativa, de unos 4.4 °C. Se trata de la anomalía más alta jamás obtenida para cualquier mes del año en las series históricas, lo que le lleva también a ser el octubre más caluroso. Todo el territorio presenta una anomalía por encima de los 4 °C, superándose ampliamente en la capital alavesa. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación normal en la vertiente cantábrica y superior a la media en la mediterránea, un 15-20 % más de horas de sol. Por capitales, Bilbao habría tenido 128 horas, Donostia-San Sebastián 133 horas y Vitoria-Gasteiz 176 horas.

El mes se divide en dos partes bien diferenciadas, tanto en la dirección del viento como en su intensidad. Durante la primera quincena el viento es local y la intensidad baja. Durante la segunda quincena predominan los vientos del segundo y tercer cuadrante y la intensidad sube de manera notable, con varias jornadas en las que se registran rachas por encima de 120 km/h.

URRIA

Egoera sinoptikoari dagokionez, hileko lehen herenean atlantiar europar antizikloia nagusitu zen: eguraldi egonkorra eta temperatura altuak izan ziren, batez ere maximoak. Hilaren 10etik aurrera Iberiar penintsulan behe-latitudetako zirkulazio izurtua nagusitu zen eta lehen euriteak ekarri zituen. Hilaren erdialdera egoerak bilakaera izan zuen, Bizkaiko golkoko depresio batera. Gero, hilaren amaierara arte, alde batetik antizikloi (Mediterraneotik Europa erdialdera zabaldua zegoena) indartsu bat eta, bestetik, atlantiar depresio sakon eta ia-geldikorren segida bat eratu ziren. Nolanahi ere, EAEn hegoaldeko fluxu indartsuak eta temperatura altuak izan genituen, Foehn efektuaren ondorioz ohikoak baino askoz handiagoak. Hilaren 30ean eta 31n fronteek presio altuek eragiten zuten oztopoa haustea lortu zuten eta EAE zeharkatu zuten, irrikaz espero zen euria eta tenperaturaren jaitsiera ekarriz.

1981-2010 denboraldi normalarekin alderatuz, urria oso lehorra izan zen. Pilatutako prezipitazioaren banaketa espaziala ere ezohikoa izan zen, kantitateak oso txikiak izan zirelako. Gipuzkoako kostaldean egin zuen euri gehien eta 40 mm inguru pilatu ziren (Aizarnazabal 45.5 mm, Andoain 39.5 mm, Miramon 39.5 mm, Eskas 38.3 mm, Ereñozu 35.3 mm). Logikoki, euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua oso baxua izan zen. Bilbon 2 euri-egun baino ez ziren izan, Donostian 4 eta Gasteizen 6, batez bestekoa 12, 11 eta 9 delarik, hurrenez hurren. Egun batean ere ez zuen euria egin denean.

Urriko batez besteko tenperatura erabat altua izan zen, 1981-2010 periodo normalarekin alderatuz. Kostaldekoa 20 °C-tik gorakoa izan zen eta Arabako Lautadakoa, 16 °C-tik gorakoa, oso anomalia positibo deigarriarekin, 4.4 °C ingurukoa. Anomalia hori serie historikoetan urte osorako izandako altuena da eta horregatik urria inoiz izandako beroena izan zen. Lurralde osoan anomalia 4 °C-tik gorakoa izan zen, Arabako hiriburuan altuagoa. Intsolazioa Kantauri isurialdean ohikoa izan zen, Mediterraneo isurialdean, berriz, ohi baino %15-20 eguzki-ordu gehiago izan ziren. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 128 eguzki-ordu inguru izan ziren, Donostian 133 eguzki-ordu eta Gasteizen 176 eguzki-ordu.

Urria bi parte erabat ezberdinetan banatu zen, bai haizearen norabideari dagokionez, bai haizearen indarrari dagokionez. Lehenengo hamabostaldian haizea noraezean eta ahul ibili zen, bigarrenean bigarren eta hirugarren koadranteako haizea izan zen nagusi eta indartu egin zen nabarmen. Bigarren hamabostaldiko zenbait egunetan haize-boladek 120 km/h-ko abiadura gainditu zuten.

NOVIEMBRE

El marco sinóptico predominante durante el primer tercio del mes fue el de altas presiones en el Atlántico subtropical. En lo que respecta al tiempo sensible, las temperaturas continuaron altas, aunque los días 4 y 9 nos cruzaron sendos frentes fríos, con precipitaciones más generalizadas ese primer día. A partir del día 10 la situación evolucionó hacia un anticiclón centroeuropeo, con DANA en altura, impulsando flujos del este en capas bajas y en ocasiones más netamente del sur, los cuales provocaron ascensos acusados de las temperaturas, como los días 8 y 12. A partir del día 14 entramos en una configuración muy distinta, en la que predominó una circulación zonal cada vez más intensa, con el continuo paso de frentes atlánticos por el territorio e intensos vientos de componente oeste. Las temperaturas se fueron normalizando, con un importante descenso de las mismas a partir del día 18; en definitiva, tiempo más otoñal, incluso con tintes invernales. Del 26 en adelante, predominio de las configuraciones continentales, anticiclón centroeuropeo primero, anticiclón siberiano en la despedida del mes, que condujeron a un tiempo más seco y cada vez más frío.

Noviembre se ha comportado de manera dispar a lo largo del territorio, existiendo un marcado gradiente entre las comarcas litorales, muy húmedas, y las del sur de Álava, secas, quedando las comarcas en torno a la divisoria en la categoría normal. El nordeste de Gipuzkoa ha sido, con diferencia, la zona donde más ha llovido, con algunas estaciones superando los 300 mm (Eskas 421.1 mm, Miramon 380 mm, Behobia 373.8 mm, Añarbe 344.6 mm, Oiartzun 321.1 mm). El número de días de lluvia (≥ 1 mm) ha sido superior a lo normal en todo el territorio: 15 días en Bilbao, 16 en Donostia-San Sebastián y 11 en Vitoria-Gasteiz, concentrados sobre todo a partir del día 14. Entre ellos, ha habido 8 jornadas de acumulados muy abundantes (≥ 30 mm), incluso 2 por encima de los 60 mm.

Las temperaturas medias de noviembre han sido entre cálidas y muy cálidas. En la costa se han movido entre los 13-15 °C, más altas hacia el oeste, y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 10 °C, aproximadamente 2.1 °C por encima del promedio normal 1981-2010, una anomalía heterogénea a lo largo de la CAV, más alta en la vertiente cantábrica, menor en la mediterránea. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación que prácticamente es la normal. Por capitales, Bilbao habría tenido 88 horas, Donostia-San Sebastián 101 horas y Vitoria-Gasteiz 98 horas.

Predominio de flujos del segundo y tercer cuadrante durante las dos primeras semanas. Durante la segunda quincena los flujos predominantes son del tercer y del cuarto cuadrante, alternándose a medida que se suceden pasos frontales por el Cantábrico oriental.

AZAROA

Hilaren lehen herenean, Atlantiko subtropikaleko presio altuak nagusitu ziren esparru sinoptikoan. Eguraldiari dagokionez, tenperatura altuekin jarraitu genuen, nahiz eta hilaren 4an eta 9an bi fronte hotzek eragin; lehen fronteak euria leku gehiagotan utzi zuen. Hilaren 10etik aurrera egoera aldatu egin zen, eta Europa erdialdeko antizikloi bat nagusitu zen, depresio askatu batekin goi-geruzan: gainazalean ekialdeko fluxua ibili zen eta noizbehinka hegoaldekoa. Hegoaldeko fluxuak tenperatura asko igotzea eragin zuen, hilaren 8an eta 12an, esaterako. Hilaren 14tik aurrera konfigurazio oso ezberdin batera pasa ginen, zeinetan egunak pasa ahala, orduan eta indartsuagoa egin zen zirkulazio zonala. Horrela, etengabe pasa ziren Atlantikoko fronteak EAetik eta mendebal-osagaiko haizea oso indartsua izan zen. Tenperatura ohiko balioetara bueltatu zen, hilaren 18tik aurrera jaitiera nabarmen batekin; azken finean udazkeneko eguraldia, negu itxura pixka batekin. Hilaren 26tik aurrera, kontinenteko antizikloiak nagusitu ziren, lehenik Europa erdialdekoa, eta azken egunetan Siberiako antizikloia: horrela, eguraldi lehorra eta hotza izan zen.

Prezipitazioari dagokionez, azaroa oso ezberdina izan zen eskualdearen arabera; kostaldean oso hezea izan zen, Arabako hegoaldean, aldiz, lehorra. Isurialdeen arteko banalerroaren inguruko eskualdeetan azaroko prezipitazioa ohikoa izan zen.

Gipuzkoako ipar-ekialdean egin zuen euri gehien, alde handiarekin gainera. Zenbait estaziotan 300 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 421.1 mm, Miramon 380 mm, Behobia 373.8 mm, Añarbe 344.6 mm, Oiartzun 321.1 mm). Euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohikoa dena baino handiagoa izan zen: Bilbon 15 euri-egun izan ziren, Donostian 16 eta Gasteizen 11, gehienak hilaren 14tik aurrera. Euri-egun horien artean, 8 egunetan prezipitazioa oso ugaria (≥ 30 mm) izan zen eta 2 egunetan 60 mm baino gehiago pilatu ziren.

Azaroko batez besteko tenperatura beroa edo oso beroa izan zen. Kostaldeko batez besteko tenperatura 13-15 °C artekoa izan zen, mendebaldean altuagoa, Arabako Lautadakoa 10 °C ingurukoa. 1981-2010 periodo normalarekin alderatuz, batez besteko tenperatura 2.1 °C altuagoa izan zen EAE osoan, Kantauri isurialdean anomalia hori baino handiagoa izan zen, Mediterraneo isurialdean, berriz, txikiagoa. Intsolazioa ohikoa izan zen, gutxi gorabehera. Bilbon 88 eguzki-ordu inguru izan ziren, Donostian 101 eguzki-ordu eta Gasteizen 98 eguzki-ordu.

Lehenengo bi astetan bigarren eta hirugarren koadranteko fluxua izan zen nagusi. Bigarren hamabostaldian, berriz, hirugarren eta laugarren koadranteko fluxua gailendu zen, Kantauri itsasotik fronteak igaro ahala koadrante batetik bestera aldatuz.

DICIEMBRE

El mes comienza con un régimen euro-atlántico de bloqueo escandinavo, el cual favorece sobre la Península el patrón de depresión atlántico-ibérica, presente durante el primer tercio del mes. Después la situación sinóptica es de intensa circulación zonal a bajas latitudes, que se mantiene hasta mediados de mes. La protagonista es la profunda borrasca Efraín, situada en el Atlántico al noroeste de Azores, con un desarrollado sistema de frentes y sendas bajas secundarias que entran por el centro peninsular y por el golfo de Bizkaia. La llegada de un río atmosférico y de la borrasca Efraín después dan lugar a varias jornadas de precipitaciones. Hacia el día 17, al desaparecer Efraín se configura un patrón de anticiclón centroeuropeo, que es progresivamente reemplazado por el de depresión británica. A partir de entonces la circulación zonal se volvió una dinámica habitual, con el continuo paso de borrascas a la altura del paralelo 50°N y altas presiones en la cuenca mediterránea. El tiempo fue estable, predominando los cielos con nubes de tipo medio y alto, además de escasas precipitaciones.

Diciembre, en general, se ha comportado de manera muy seca, aunque hacia el eje del Ebro se normalizan los valores. En la vertiente cantábrica, excepto en el litoral, y en la mitad norte de Álava ha llovido menos de la mitad del promedio normal. La distribución espacial se aleja de lo habitual, con máximos en esta ocasión repartidos por las Encartaciones, la costa vizcaína y el nordeste de Gipuzkoa (Balmaseda 122 mm, Eskas 119.5 mm). A pesar de la calificación, el número de días de lluvia (≥ 1 mm) no se aleja demasiado de lo normal en el litoral, aunque sí lo hace en el interior: 10 días en Bilbao, 9 en Donostia-San Sebastián y 6 en Vitoria-Gasteiz. Solo ha habido una jornada de acumulados muy abundantes (≥ 30 mm), concretamente, el día 16, de manera anecdótica en el nordeste de Gipuzkoa (Eskas 32.4 mm, Añarbe 21 mm, Ereñozu 19.4 mm).

Las temperaturas medias de diciembre han sido muy cálidas. En la costa se han movido en una amplia horquilla, entre los 12-14 °C, y en la Llanada Alavesa han rondado los 8 °C, aproximadamente 2.5 °C por encima del promedio normal 1981-2010. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación que ha rondado lo normal en esta época del año. Por capitales, Bilbao habría tenido 63 horas, Donostia-San Sebastián 93 horas y Vitoria-Gasteiz 93 horas.

Predominio de flujos del segundo y tercer cuadrante, especialmente durante el segundo y el tercer tercio del mes. La intensidad ha sido alta durante esos períodos, con algunas rachas huracanadas. Durante el primer tercio el viento es más variable y su intensidad, en general, más baja.

ABENDUA

Abenduaren hasieran Eskandinaviako antizikloi-blokeoa izan genuen eta egoera sinoptiko horrek Atlantikotik Iberiar penintsulara depresioak mugitzea erraztu zuen; egoera hori izan genuen hilaren lehen herenean. Gero, behe-latituteetako zirkulazio zonal indartsua berrezarri zen eta hilaren erdialdera arte iraun zuen. Azpimarragarriena Efraín depresio sakona izan zen, Atlantikoan, Azoreen ipar-mendebaldean finkatu zen, ongi garatutako fronte-sistema batekin eta bigarren mailako bi depresiorekin. Depresio bat Iberiar penintsularen erdialdetik sartu zen eta bigarrena Bizkaiko golkotik. Gero, ibai atmosferiko batek eta Efraín depresioaren etorrerak hainbat egunetan giro euritsua ekarri zuten. Hilaren 17an, Efraín desagertu ondoren, Europa erdialdeko antizikloiak indarra hartu zuen eta gero hori Britainiako depresio batek ordezkatu zuen. Ordutik aurrera zirkulazio zonala gailendu zen: etengabe pasa ziren 50 °I latitudetik depresioak eta Mediterraneoan presio altuak gailendu ziren. Eguraldia egonkorra izan zen, zeruan erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak izan genituen eta ia ez zuen euririk egin.

Abendua oso lehorra izan zen orokorrean, baina Ebro ondoko eskualdean pilatutakoa ohikoa izan zen. Kantauri isurialdean, kostaldean salbu, eta Arabako iparraldean ohiko batezbestekoaren erdia baino gutxiago pilatu zen. Pilatutako prezipitazioaren banaketa espaziala ezohikoa izan zen. Enkarterrietan, Bizkaiko kostaldean eta Gipuzkoako ipar-ekialdean egin zuen euri gehien (Balmaseda 122 mm, Eskas 119.5 mm). Abendua oso lehorra izanagatik, kostaldeko euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohiko kopurutik gertu izan zen, ez ordea barnealdean. Bilbon 10 euri-egun izan ziren, Donostian 9 eta Gasteizen 6, horietako gehienak hilabetearen lehenengo erdian. Egun bakar batean izan zen euria oso ugaria (≥ 30 mm), hilaren 16an Gipuzkoako ekialdean eta gutxigatik (Eskas 32.4 mm, Añarbe 21 mm, Ereñozu 19.4 mm).

Abenduko batez besteko tenperatura oso beroa izan zen. Kostaldekua 12-14 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadakoa, 8 °C ingurukoa, hau da, 1981-2010 periodo normalaren batezbestekoa baino 2.5 °C inguru altuagoa. Intsolazioa ohikoa izan zen, gutxi gorabehera. Bilbon 63 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 93 eta Gasteizen 93.

Abenduan bigarren eta hirugarren koadranteako fluxuak izan ziren nagusi, batez ere hilabetearen bigarren eta hirugarren herenetan. Fluxu horiek gailendu zirenean, haizea indartsu ibili zen, bolada bortitz batzuekin. Lehen herenean, haizearen norabidea aldakorragoa izan zen eta ez zen hain indartsu ibili.

